

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Zein da zure bezeroa?**

Gure bezeroa, bezero unifamiliarra izango da, bakarrik bizi den jendea eta horren bitartez bakardadea sentitzen duena edo norbaitekin bizitzeko gogoia duena. 18 eta 90 urte bitarteko jendearentzat izango da gure zerbitzua, edade talde bakoitza dagokien edadekoekin egokituko ditugu, mundu guztiak du gure zerbitzua jasotzeko aukera, betiere arlo guztietan osasuntsu dagoela adierazten badu, bai psikikoki eta fisikoki. Pertsona independentea izan behar da eta adin nagusikoa, hau da ezin da etorri norbait oraindik bere gurasoen mende bizi dena adibidez.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Bezero horiek beste batekin bizitzeko eta etxea partekatzeko gai izan behar dira, eskuzabalak, ostera arazo bat izango dugu. Jende nagusia izan behar da, inork ez du hemen parte hartzen beste baztut zaintzeko elkarbitzitzeko baizik. Guri informazioa eman beharko digute, horren bitartez gure taldeko soziologoek lan egin beharko baitute, hori gabe ezin dugu ezer egin. Gehien bat bakardadea sentitzen duen jendea izango da, norbaiten laguntza behar duena. Hala ere, ondo sentitzen den jendeak ere parte hartzeko aukera du inolako arazorik gabe.